IKASI NAIA

Neska katalana Euskera ikasten Markinan

Eranegun, Kontxan barruan nenbillela, nexka adiskide bat arkitu nuen. Bere izena, Ana Mari, katalana, Manresakoa. Filosofia ikasten ari da.

—Zer zabiltza Donostian, Ana Mari? Ez nekien emen zeundenik.

—Biar bertan Manresara itzuliko naiz. Baiñan... ba al dakizu nun izan naizen?

—Ez. Turismoa egiten?

Aren parraki Inguruan zegoen jendea begira jarri zitzaigun.

—Turismoa? Ez, ez. Markinan illabete bat izan naiz.

—Markinan? Uri ederra da ura. Eta zer egin dezu?

—Euskera ikasten izan naiz.

—Euskera ikasten... zu, neska katalan batek... Tia, tia! Brometan zabiltza!

Baiñan ez zan broma bat. Ana Mari orduan asi zan euskeraz itzegiten. Poliki, poliki, itzak ondo lantzen. Baiñan an, bere aoan, euskera garbi bat irtetzen zan. Ni benetan arrituta nengoen. Manresan jaio eta bizi dan neska batek nere aurrean euskeraz itzegiten. Ana Marik bizkaieraz ikasi du.

—Nola esaten dezute «neban» giputzkoeraz? «Negoen»?

Eta Ana Marik izen berriak bereganatzen zituen.

—Nola esaten da «invasor»? Zapaltzaille? Bai itz sakona!

Orrela ibili giñan Kontxan, Jende tartean euskal itz berriak ikasten. Nere barruan piskortu ziran euskal neska eta mutil askok esan dituzten itzak: —Aprender vasco? Con lo difícil que dicen que es? Además, para qué sirve?

Nere ondoan neska katalan batek euskeraz itzegiten zidan. Askotan, itzak bere barruan arkitzeko, begia kitxitzen zituen, eta bereala an esaten zidan euskal itz jatorra.

—Ana Mari, euskera ikasten zergatik ari zera?

—Nere lagun batek Markinara joateko esan zidan, an euskera ikasteko... eta gauza interesantea iruditu zitzaidan.

—Nola ikasi dezu euskera?

—Altunaren liburuakin. Beren ogsi ikaskizun eta itz guztiak nere barruan ditut. Baiñan orain bizkaieraz ikasi det ango jendeakin. Batek itz bat era batean esan bear dala esan ondoren, gero beste batek itz ura beste era batean esaten dala esaten dit. Eta orregatik euskera zaillago iruditu zait.

—*Eta euskera batua?*

—Ezagutzen det, baiñan neretzeko zailtasun bat izan da. Errian nenbillenean ez det euskera batua iñoren aotan entzun. Eta «h» esatea klasetan bakarrik aitu det. Esan bear aal dira?

—Orrela diote.

—Neretzat euskeraren beste era bat izan da euskera batua. Ez aal zan obeto izango bakoitzak bere euskera ondo ikastea, eta aldizkarietan era guztiak agertzea?

—Baliteke.

Berandu xamar zan eta, Ana Mari joatean, berriro leengo itzak bururatu zitzaizkidan: —«¿Aprender vasco? Dificilísimo. ¿No es de las lenguas más difíciles?». Bai, ikasi nai ez dunarentzako, euskera, frantsesa eta japonesa oso zaillak dira. Leenago ikasi naia izan bear da. Orduan gauzak asko errazten dira. Eskerrik asko, Ana Mari. Gure erriari ikaskizun onena eman diozu. Adeu. Agur.

X. ARCELUS

LIBURUAK

Sustrai bila

Larresoro jaunak egina. Izengoiti berriz —Z. A. irakurtzen dutenentzat berri ez bada ere; gaurdaino *argitara dituen liburuek ez bait zeramaten honelako* izenik, oraingo gazte askok oso ezaguna duen beste bat baizik— eman digu egileak liburuxka berri hau. Zer dela-ta izengoiti aldatze hau? Borrokan ari denari etsaiak nonnahi sortzen zaizkio, izena erre egiten zaio, batez ere daraman izena su errazki hartzen duten horietakoa baldin bada. Beldur naiz, halaz ere, hartu duen izen berriak ere, izena eta esan nahi duena batera badatoz, ez ote den laster su hartuko —su emaile asko bait dugu inguruan— eta berriro ere izen aldatzera beharturik ez ote den izango. Naiz laharrak ere, txilarrak bezala, laster su hartu, jarrai bedi lanean, izengoiti berririk ez zaio faltako-ta.

Bere nobcia, saio, artikulu, ipui irakurtzen ohiturik genduzkan. Halakoen idazle bezala ezagutzen genduen gaurdaino. Oraingo liburuxka honetan, ordea, *azio eta gai berriari ekin dio; zer-edo-zergatik aldatu du, aldatu ere, lanbidea!* Eta irakasten hasi denari irakasgaiak eskaintzea dagokio. Euskarak, gramatika aldetik batikbat, sortzen duen zenbait korapilori lotu zaio liburu berri honetan. Eta ezin uka, lehengo literatur-sail haiei txertatu zien bere "etxeko kaki edo marka" txertatu dionik oraingo berri honi ere.

Euskara dela ez dela honenbeste istilu eta sistra darabilgun garai honetan, alde guztietan sasi-maisuak zizak baino areago ernetzen ari zaizkigularik eta hogeitaka urtez euskaraz idazten eta irakasten ari izan direnak oraintxe, nola idatzi ez jakinki, luma hormako iltzetik isekitzeko erabakia hartzeko tentazioan daudelarik —tentazio gaiztoa, dudarik gabe, baina tentazioa, halaz ere—, garai honetan, berriz dioet, alferrikako lana nuke liburu honek ekar dezaigukean —ekarriko digun— ontartea nik hemen goraipatu nahi izatea. Berez goraipatzen da liburu hau. Ez dut esan nahi hor agertzen den guztia oraindaino esan gabe zegoenik eta egileak berez aurkitu eta asmatu duenik. Ezta gutxiago ere! Liburuxka horretako punturik gehienak ezagunak ditu —hala behar lituzke behintzat— euskaraz, etxean irakatsi ziotenaz gainera, ikasten ahalegindu denak eta areago, euskaraz idazteko ohitura izan duenak. Baina berriak eta bereak ez baditu ere —gehienen aitatasuna humilki aitortzen du—, era berri batez eta irakurleei han agertzen direnak hala direlako zalantzarik geldi ez dakiekean gisa batez, esaten dizkigu: hots, esanak frogatuz, irakasten dizkigunak autore zahar eta berriren zita ugariz sendotuz, bere kabuz eta tajuz mintzatu ordez antzinako eta geroagoko euskal-maisu jatorrei hitz eraginez. Hori dugu, hain zuzen, biderik zuzenena; bakarra, esango nuke. Geuron asmakeriak inori harrerazi nahi izatea denbora alferrik galtzea besterik ez da. Asmatzen guztiok gara mutil eta maisu, eta nonnahi aurki dajteke norbaitek asmatuak baino asmakizun bitxiagorik asma dezakeanik. Uxa ditzagun, beraz, asmakeriak eta hizkuntzaz, den bezala, ez inoiz izan omen zen bezala edo nahi gendukean bezala, balia gaitezen. Ur joana betirako joana da eta ur hura berriz lehengo lekutik pasarazi nahi izatea, denbora alferrik galtzea. Hizkuntza ez dago egon, joan doa, eta gehienez doan bezain laster joatea eragotz dezaiokegu, ez erabat geldiaraz. Urari lasterregi ibiltzen eragotziko dion biderik egokiena honi deritzat (eta zenbait sinesgogorri euskara jatorra hau dela sinestaraziko diona ere bai, honi): hots, hau bezalako liburuxka ugari argitaratzeari.

Aipua ez ezik, nik oker deritzadan puntu batetan "egurra" eman dezaidan, nere ustez oker den huskeriatxo bat ez nuke isilik utzi nahi. Okerra egilearena ez baina nerea baledi, neu ere egurra hartzeko prest nago. Hona nik zeri deritzadan oker: "eritzi" aditz bakarra dugu euskaraz, BETI nor-nori-nork jokatzen dena. Gazteldarrek gure aditz bakar hori zenbait bider "se llama" eta beste zenbait bider "lo juzgo, lo estimo" itzuli behar izatea, guri —beri bederen— bost axola. Euskara jatorrez honela dira esakum haueK: "mutil horri Mikel deritza" eta "mutil horri nik gaizto deritzat". Bi hauetatik lehenengoan, gaztelerazko "se llama" horrek eraginik, nork ageri ez delako ez dela esatea, itxuragabekeria da. Gazteleraz ez dute, apika, jakingo nork derizan Mikel, "se llama" esaten bait dute; baina guk, euskaldunok,

Irakur zaitt

"mutil horri Mikel deritza" esaten dugunean, ba dakigu nork deritzan horreia: HAREK. Nor den HURA hori? Nornahi izan daiteke: erdi zuen ama, lehendabizikoz Mikel deitu zion amona edo aitona, edo elizako pontean bateatu zuen apeza. Nornahi. Baina, nornahi delarik, HURA bederen. Alegia, "mutil horri Mikel deritza" esatean, norbaitek hala deritzala adierazten dugu, nor den ez dakigun arren. Era berean, "euria ari du" esaten dugunean, nork ari duen ez dugu esaten, baina norbaitek ari duela bai: Jupiter izango da, edo deabrua, edo Jaungoikoa... Dena dela, norbait. Horretaz, "deritza" nik hari da, ez harek neri. Harek neri esateko, 153-gn. orrialdean aipatzen diren esenpluetan garbi ageri denez, "deritz" esan behar da, ez deritza. Era berean, derizku, deritzu, deritzue, derizte. Ba ote? Nik hala uste.

Bukatzeko eta gehiegi luza ez nadin: seguru nago euskara batua eta jatorra ikasteko irrikitan dugun hamaika andereñok eta bestelako neska-mutil gaztek liburuxka hau oso gogoz irakurriko duela eta gauza berri asko ikasten ez badu ere, hala zergatik den ikusteko bidea izango duela. Nik izan dut bederen.

PATXI ALTUNA-K S. J.

ESAERA - ZAARRAK

Buru batek, milla balio; ta milek batez. (AN. Areso).

—oOo—

Borondate ederra; baño etxe utsa daukeu. (AN. Areso) Borondate onarekin apaltasun aundia erakusten zuan ark.

—oOo—

Bere erranetik ezta ateratzen ori. (AN. Baztan) *Emandako itza jaten* ez duenaz eta setasuaz ere esaten dana.

—oOo—

Begiak beltz-beltzak, mantzalin, dituzu; baño ur-gorria edaten poleki dakizu. (ANAraiz) Etxeko-andretako etzera ona zu.

—oOo—

Bakoitza nola bizi dan etxeko labatzak daki. (AN. Areso).

—oOo—

Belar asko bildu duzu? Maiatz luzeak jango dizu. (Areso).

—oOo—

Bakoitzek bere santuari otoitz. (AN. Oskotz).

—oOo—

Bahatzetik gosia, bahatzetik asia. (Xuberoa).

oyal s.a.

Oyal eta eforru almazena

Paregabekoak

Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA

ATANO TA ESTRADA, Bertsolariak

Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. 1970. 94 Zenbakia. 166 orrialde.

Ezta euskaldunik izango, Atano izena entzun ez duanik; gehien gehienei, ordea, itz horrek pelotariena bakarrik oroitarazIko die. Bertso honen egilea ere familiakoa da.

Pelotari gizaldiz aurretik, bertsolari-gizaldi bat izan zan familia honetan. Atano pelotarien aita ta osaba bertsolariak bait-ziran.

Atano baserrian jaioak ziran. Baserri hori Azkoitiko partean dago, kaletik ordu laurden batera, Izerraitz mendiaren azpian.

Jose Mari Atano totela omen zan Izketan, baina, ohi danez, kantuan etzuan holakorik batere. Juan Mari Atano berriz, luze-luze eta meharra omen zan. Horregatik «Atano Luzia» esaten zioten.

Jose Maria Lete Arrizabalaga, bere baserriaren izenaz deitzen zioten. Horregatik «Estra» edo Estrada. Azkoitian jaioa, garai hartako eztaietan, baserrietan batez ere, eta inguruetako erri-festetetan asko Ibiltzen zan. Erriko musika bandan ere tanborra jotzen omen zuan. Auzoan ere ondo estimatua omen zeukaten. Makina bat karta egiten omen zien kanpoan zeuden neska-mutilei etxekoen partez.

A. M.

«MUNIBE»

Sociedad de Ciencias Naturales ARANZADI. Pl. I. Zuloaga. Donostia. Año XII — 1970. Fasciculos 3/4. «Paleolitikoko giza-ortzak Lezetxikin (Arrasaten)». Jose Maria Basabe. «Aitzorrotz-en ondalanak. 1968. Ignazio Barandiaran.

«Urtiaga-ko histori-aurreko gunean erbi artikoaren arkimena. Jesus Altuna. «Euskalerriko lur-azpiko uretan bildutako Anfipodoak». Ramon Margalef. «Leiza Aundi II Bilduma — Sabe-Saiako Leizea. Jaime Villota eta Carlos Galan. «Euskalerriko mikologiko bilduma. Mikologiako Saila». «Eusko Folklore. Galak eta galderak. 3-gn. zerrenda. Z.ª 22». Jose Migel Barandiaran. «Euskal Historl-Aurreko sistemaz egindako Bibliografia». Ignazio Barandiaran. «Euskal Baserria» Luis Pedro Peña Santiago.